

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

**62/2024 Foru Agindua, abuztuaren 16koa, Gorbeia Parke Naturaleko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko (KBE) Arabako isurialdean zirkulazioa, erabilerak eta jarduerak mugatzen dituen oreinen marrualdian**

Gorbeia Parke Naturalak eta KBEak (ES2110009), azken hamarkadetan, urtero arautu ditu oreinen marrualdi garaian naturagunearen barruko eremu mugatuan ibilgailuen zirkulazioa eta izan daitezkeen erabilerak eta jarduerak. Horri esker, emaitza ezin hobeak lortu dira Arabako Foru Aldundiak espezie horretarako dituen kudeaketa gidalerroen arabera; izan ere, espeziearen populazioa hobetzea eta eragin zonako kalteak murriztea lortu da, eta, horrenbestez, beharrezkotzat jotzen da modu iraunkorrean arautzen jarraitzea.

Oreinen sakabanatze geografikoa saihesteko eta ugaltzeko aldietan edo marrualdietan hautespen naturala ahalbidetzeko, beharrezkoa da espeziearentzat kritikoa den aldi horretan ahalik eta gehien murriztea kanpotik datozen asaldurak naturagune babestuaren Arabako isurialdean.

Naturagune hori kudeatzeko araudian, Parke Naturalaren Natura Baliabideen Antolamendurako Planak (NBAP) (ekainaren 21eko 227/1994 Dekretua) ezartzen du, besteak beste, parkearen kudeaketaz arduratzen den organoak oreina gobernatzeko plan bat egin beharko duela eta populazioei beharrezko lasaitasuna bermatu beharko diela, batez ere araldian eta erditze aldian. Ildo beretik, honako hau ezartzen da II. Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean (EKZP) eta Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 29ko 276/2018 Erabakiaren bidez onetsitako Gorbeia Parke Naturalaren eta KBEaren (ES2110009 KBE) kudeaketa gidalerro eta jardunen agiriko 2.7.1.2 apartatua (Muga bereziak orroaldian [sic]): "Orroaldiaren datak irailaren hasieratik urriko bigarren astera bitarte joango dira, eta urtero finkatuko ditu horiek Kudeaketa Organoak".

Era berean, Arabako Foru Aldundiaren erabilera eta jabari publikoko mendietan motordun ibilgailuen zirkulazioa araudia onesten duen martxoaren 9ko 10/2010 Foru Dekretuak bosgarren artikuluan xedatutakoaren arabera, naturagune babestuetako zirkulazioak berariazko araudi propioa bete behar du, eta, Gorbeia Parke Naturalari dagokionez, araudi hori Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 23ko 113/1999 Foru Dekretuaren bidez ezarri zen.

Horregatik guztiagatik, Natura Ondarearen Zerbitzuak emandako argibideak aintzat hartuta eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ibilgailuen zirkulazioa mugatzea pista eta bideetan, Gorbeia Parke Naturaleko eta KBEko Arabako isurialdeko marrualdi eremuan, Zuiako eta Zigoitiko udalerrietako lursailetan, foru agindu honen I. eta II. eranskinean zehazten diren mugekin, irailaren hasieratik urriaren bigarren astera arte, Natura Ingurunearen Zuzendaritzak emandako urteko ebazpenean adierazten den egunetan, salbu eta ehiza, egur, larre, luberri eta sastraka aprobetxamenduekin, zientzia ikerketa baimenduekin eta bestelako jarduerekin lotutako kasu berariaz baimenduetan, bat etorri horri buruz naturagunea kudeatzeko araudiak ezarritakoarekin.

Zirkulazioa mugatuta izango duten pista eta bideak behar bezala seinaleztatuta egongo dira murrizketa aldian.

Bigarrenena. Marrualdi eremu mugatuan oinez, bizikletaz edo zaldiz egiten diren ibilaldi guztiak Bidezidorren Sare Orokorren barruan egin beharko dira, eta ezin izango da haietatik irten inolaz ere. Horrez gainera, zaldiz eta mendi bizikletaz ibiltzeko, dela taldean edo bakarka, dela era antolatuan, parkeko kudeaketa organoaren baimena beharko da.

Hirugarrenena. Bi eremu seinaleztatuko dira entzuteko, behatzeko, argazkiak ateratzeko eta filmatzeko behatoki gisa erabiltzeko, eta, horretarako, eskaera egin eta berariazko baimena eskuratu beharko da. Baimen horretan ezarriko dira erabiltzeko txandak eta ordutegiak, bai eta nahitaez bete beharreko jarraibideak ere.

Laugarrenena. Debekatuta dago perretxiko eta basafruitu aprobetxamendua marrualdi eremuan ezarritako urteko aldian.

Bosgarrenena. Marrualdi eremuan eta aldian mugatu egingo dira premiazkoak ez diren baso lanak (garbiketak, bakanketak, mehazketak, etab.).

Seigarrenena. Marrualdian espeziearekin zuzenean zerikusia duen beste edozein jarduera (marruak entzun, behatu, argazkiak atera, filmatu eta abar) behatokitatik kanpo egin ahal izateko, parkeko kudeaketa organoaren berariazko baimena beharko da, eta organo horrek ezarriko ditu lekuei, orduei eta jokabideei buruzko baldintzak.

Zazpigarrenena. Aldi baterako murrizketa epe horretatik kanpo ere debekatuta dago, berariazko baimena izan ezean, motordun ibilgailuak Gorbeia Parke Naturaleko eta KEBko pista eta bideetan ibiltzea, naturaguneari buruzko araudian ezarritakoaren arabera.

Zortzigarrenena. Baimenak Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuan eskatu behar dira, hura baita parkearen kudeaketa organoa.

Bederatzigarrenena. Natura Ondarearen Zerbitzuak foru agindu honetan ezarritako mugen berri emango die eragindako udalei, administrazio batzarrei eta ehiza barrutiei.

Hamargarrenena. Baimena ematen zaio Natura Ingurunearen Zuzendaritzari foru agindu honetan ezarritakoak garatzeko eta, bereziki, marrualdiaren urteko aldiari eta I. eta II. eranskinen mugaketari dagokienez, oreinen inguruabar biologikoen edo populazio inguruabarren arabera.

Hamaikagarrenena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abuztuaren 16an

*Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko diputatua*  
**SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA**

### I. eranskina

#### Marrualdi eremuaren mugaketa

Iparraldean: Araba eta Bizkaia arteko muga, "Arraldeko haitzak" (Zuia) eta "Leizaranda" (Zigoitia) artean.

Ekialdean: Murua herritik "Leizaranda" dermioraino, Gorbeiaiko harrobietara doan pista eta hortik aurrera.

Hegoaldean: Murua, Manurga, Zárate, Aretxaga, Markina eta Sarria herrietako Gorbeiaiko behe basoa, A-3610 errepidearen eta Gasteiz-Altube N-622 autobidearen gainean dagoena.

Mendibaldean: Baia ibaiarekin paralelo doan pista, Sarria herritik "Arraldeko haitzak" dermioraino.

Aipatutako bideak, mugatzen duten eremutik kanpo geratzen dira.

### II. eranskina

#### Kartografia

[https://gorbeiparkea.eus/documents/2600738/3110192/Mapa\\_Marrualdia\\_web.pdf/83850289bd87-5ed3-bfb5-86dbe56289bd?t=1598273448870](https://gorbeiparkea.eus/documents/2600738/3110192/Mapa_Marrualdia_web.pdf/83850289bd87-5ed3-bfb5-86dbe56289bd?t=1598273448870).